Urnietako Udala — Ayuntamiento de Urnieta

Gipuzkoa

# 2011KO MARTXOAREN 9KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 9 DE MARZO DE 2011

**Akta zenbakia:** 4/2011
**Bilera data:** 2011-03-09
**Bilera mota:** Ezohiko osoko bilkura
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordu:** 18:00- 18:05
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Bertaratutakoak:**
**Alkatea:** Miguel Izaguirre Recondo

**Zinegotziak:**
Ramón Goikoetxea Abadía
Juan M. Tomasena Alzuri
Hermenegildo Gonzalez Moran
Consuelo Frutos Gonzalez
Jose Guirado Novo
Nerea Sayavera Urchueguí
Maribel Vaquero Montero
Miren Martiarena Barkaiztegui
Gaspar Esnaola Agesta
Juan Ignacio Mendizabal Eguia
Xavier Sasiainbarrena Arakistain

**Etortzerik ez dutela adierazi dute:**
Gotzone Astiasaran de Miguel

**Bitarteko idazkaria:**
Nagore Alkorta Elorza

**Aztergaiak:**

**Lehena eta bakarra.-**Udal espazioak ustiatzeagatik ordaindu beharreko tasen onarpena.

**Acta nº:** 4/2011
**Fecha:** 09-03-2011
**Tipo de reunión:** Pleno Extraordinario
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 18:00- 18:05
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Reunidos:**
**Alcalde:** Miguel Izaguirre Recondo

**Concejales:**
Ramón Goikoetxea Abadía
Juan Mª Tomasena Alzuri
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos González
José Guirado Novo
Nerea Sayavera Urchueguía
Maribel Vaquero Montero
Miren Martiarena Barkaiztegui
Gaspar Esnaola Agesta
Juan Ignacio Mendizábal Eguia
Xavier Sasiainbarrena Arakistain

**Ausentes, que se han excusado:**

Gotzone Astiasaran de Miguel

**Secretaria interina:**
Nagore Alkorta Elorza

**Orden del día:**

**Primero y único.-** Aprobación de las tasas por explotación de los bienes del Ayuntamiento.

# 2011KO MARTXOAREN 9KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 9 DE MARZO DE 2011

Mikel Izagirre alkateak gai azaldu ostean, bozketa egin dute. Emaitza hau izan da:

Alde: 11 (UDA 3, EAJ-PNV 3, PSE-EE/PSOE 4 eta Xavier Sasiainbarrena)

Kontra: 0

Abstentzioak: Iñaki Mendizábal

Expuesto el tema por el alcalde Mikel Izagirre se procede a la votación , con el siguiente resultado:

A favor: 11 (UDA 3, EAJ-PNV 3, PSE-EE/PSOE 4 y Xavier Sasiainbarrena)

En contra: 0

Abstención: Iñaki Mendizabal

Ikusirik martxoaren 4ko Ogasuneko Informazio Batzordean eztabaidatu eta informatu zela gai honen inguruan.

Alkatearen proposamenaren gaineko bozketa egin ostean, Udalbatzak legez eskatzen den gehiengoarekin hartu du honako

Visto que en la Comisión Informativa de Hacienda celebrada el 4 de marzo se trató e informó sobre este punto.

Tras haber sometido a votación la propuesta del alcalde, la Corporación adopta con la mayoría legal exigida el siguiente

## ERABAKIA

**Lehenengoa eta bakarra**.- Hasierako onespena ematea zerga, tasa eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantza fiskalen aldaketari:

Hartutako erabakia eta xede horretarako bideratutako espedientea jendaurrean jarriko dira, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.1 artikuluan xedatutakoa betez, iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko ediktu-taulan argitaratuta. Hori guztia, arau hauekin bat etorriz:

***Eskuratzeko lekua:*** udaletxe honetako Kontu-hartzailetzan.

***Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea***: 30 egun baliodun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bulego ordutegian.

## ACUERDO

**Primero y único-** Aprobar inicialmente la modificación de las Ordenanzas Fiscales reguladoras de impuestos, tasas y precios públicos .

El acuerdo adoptado, y el expediente al efecto instruído, se someten a información pública en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 16.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de la Haciendas Locales de Gipuzkoa, mediante publicación de anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el tablón de edictos del Ayuntamiento, todo ello conforme a las siguientes reglas:

***Lugar donde se hallan de manifiesto*** : En la Intervención de este Ayuntamiento

***Plazo para examinarlos y en su caso para formular las reclamaciones:*** 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la

Urnietako Udala — Ayuntamiento de Urnieta

Gipuzkoa

## 2011KO MARTXOAREN 9KO UDALBATZARRAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 9 DE MARZO DE 2011

***Erreklamatzeko legitimitatea***: uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 17. artikuluan agertzen diren guztiek izango dute.

***Aurkezteko lekua:*** udaletxeko sarrera-erregistro orokorra. Halaber, Prozedura Administratiboari buruzko Legeko 66. artikuluan adierazten diren lekuetan aurkeztu ahalko da.

***Errekurritzeko organoa***: Udalbatza.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du ohiko osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean, ordu batak eta laurdenean, eta nik Urnietako bitarteko idazkariak, hala egiaztatu dut, alkatearen oniritziarekin.

inserción de este anuncio en el Boletín oficial de Gipuzkoa, en horario de oficina.

***Legitimados para reclamar:*** Los que relaciona el artículo 17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

***Lugar de presentación*** : En el Registro General de Entrada del Ayuntamiento.Tambien podrán presentarse en los lugares que señala el artículo 66 de la Ley de Procedimiento Administrativo

***Organo ante el que se recurre:*** Ayuntamiento Pleno.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo la una y cuarto de la fecha indicada en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Nagore Alcorta Elorza
Bitarteko idazkaria,

Sin.: Mikel IzagirreRekondo
Alkate-lehendakaria,

URNIETA HERRIZ ETAKO ALKATETZA
ALCALDIA DE LA N. Y L. VILLA DE URNIETA

## ANEXO I

**ALEGACIONES AL PLAN TERRITORIAL PARCIAL DEL AREA FUNCIONAL DE DONOSTIA-BAJO BIDASOA**

Ante la exposición pública, del Plan Territorial Parcial elaborado por el Departamento de ordenación del Territorio del Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su trámite de aprobación inicial y en período de alegaciones el Ayuntamiento den Urnieta, desea exponer las siguientes consideraciones y alegaciones.

**1º) NUMERO DE VIVIENDAS**

**CONSIDERACIONES**

En el documento, se hace referencia al volumen de viviendas que corresponde al municipio de Urnieta. Queremos hacer las siguientes consideraciones:

a) El Ayuntamiento de Urnieta tiene un retraso de 10 años en la elaboración del Plan General de Ordenación Urbana. El último PGOU data del 1991, estando agotadas sus posibilidades en los últimos 10 años a los cuales nos hemos referido, con lo cual hemos acumulado un déficit de vivienda importante. Este déficit queda cuantificado en unas 300 viviendas según datos de Etxebide, con el correspondiente aumento de precios de la vivienda, tanto en compraventa como en alquiler no acorde con la realidad de Urnieta. Por tanto, consideramos que los números de viviendas de 1140 viviendas que contemplamos en el Plan General de Ordenación Urbana en su período de aprobación inicial en nuestro municipio, está incluso por debajo de la fórmula que anteriormente utilizaba lasD.O.T. para el cálculo de las viviendas que correspondía a cada P.G.O.U.

ALEGACIÓN

**Por las consideraciones expuestas creemos que el número de viviendas propuestas en el documento de aprobación inicial del P.G.O.U de Urnieta es correcto y por tanto se respéte la propuesta residencial del P.O.G.U. cuantificado es 1140 viviendas y no se apliquen cuantificaciones residenciales que consideramos no adecuadas para el municipio en las fases previas a la aprobación del P.T.P.**

**2º) OCUPACIONES RESIDENCIALES PREFERENTES**

En el Plan Territorial Parcial en el Área Funcional de Donostia-Bajo Bidasoa, se proponen áreas de actuaciones urbanísticas preferenciales. En cuanto corresponde al término municipal de Urnieta, las áreas preferenciales a

ocupar son; A.I.U. 31 AZKARATE-SALESIANOS y el ámbito A.I.U.33TRANKATX. Se relega a una actuación posterior el ámbito de A.I.U.32 Babilonia.

**CONSIDERACION**

En torno a esta propuesta, decir que en el consistorio de Urnieta existe hoy unanimidad de todos los grupos políticos en la importancia preferencial de desarrollar éste ámbito por la presencia del "campus escolar" en sus equipamientos. Una reivindicación aprobada hace más de 4 años por unanimidad y largamente esperada por la comunidad escolar de Urnieta,

**ALEGACIÓN**

Proponemos el mantenimiento de todos los ámbitos de ocupación residencial y en todo caso, la ocupación preferencial del ámbito A.I.U. 32 BABILONIA.

**3º) ACCESIBILIDAD**

**CONSIDERACIÓN**

Este municipio apuesta por una movilidad sostenible. Para ello en los planes de desarrollo ha propuesto una serie de objetivos, entre ellos:

La apuesta decidida en favor del ferrocarril, en combinación con medidas complementarias de estacionamientos cercanos al apeadero de la Renfe, vías verdes y sistemas de movilidad urbana. Esto unido a la necesidad de impulsar la intercomunicación entre los distintos ámbitos del municipio, hacen necesario la reforma y trasformación del apeadero de la RENFE. Trasformación que se materialice en la construcción de un nuevo cobertizo que integre un paso peatonal abierto bajo la plataforma ferroviaria.

**ALEGACIÓN**

Se integre en el apartado de infraestructuras ferroviarias del P.T.P. la necesidad de trasformar el entramado del apeadero de Urnieta con el objetivo de mejorar el servicio del trasporte público y la intercomunicación de los distintos ámbitos del municipio.

**4º) DELIMITACIONES DE ACTUACIONES**

**CONSIDERACIONES**

El Plan Territorial Parcial Donostia- Bajo Bidasoa tiene unos límites de actuación en el ordenamiento territorial, tanto en el desarrollo urbano, las áreas de actividades económicas, terciarios, infraestructuras, etc. Esto afecta también a cada término municipal.

En el caso de Urnieta se propone utilizar como límites en la zona del OESTE, el trazado de la nueva Autovía del Urumea, que consideramos correcto. En zona del ESTE del municipio se propone traspasar el límite que supone el trazado del ferrocarril en el barrio de Lategi. Este Ayuntamiento no ve ninguna justificación, ni ahora ni en el futuro de la actuación de este P.T.P., en la medida que la duración de actuación de este plan coincidirá en términos del tiempo con el Plan General de Ordenación Urbana (P.G.O.U.) que en la actualidad está en fase de Aprobación Inicial en Urnieta. En él no se contempla la necesidad de ocupar este espacio ni para desarrollos urbanísticos ni para actividades económicas. En cuanto a necesidades de infraestructuras supramunicipales tampoco se contempla ninguna actuación en el P.T.P.

# 2011KO MARTXOAREN 9KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 9 DE MARZO DE 2011

**ALEGACIÓN**

Que los límites de actuación del Plan Territorial Parcial en el término municipal de Urnieta coincidan con los propuestos en el P.G.O.U., siendo los límites en el lado ESTE el trazado del ferrocarril y en el lado OESTE el trazado de la Autovía del Urumea, tal y como se contempla en el Plan General de Ordenación Urbana de Urnieta.

## I.ERANSKINA

### DONOSTIA-BIDASOA BEHEA EREMU FUNTZIONALAREN LURRALDE PLAN PARTZIALARI ALEGAZIOAK

Eusko Jaurlaritzaren Lurralde antolaketarako Sailak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako Lurralde Plan Partziala jendaurrean jarri ondoren, hasierako onarpena emateko izapidetzean eta alegazioak egiteko epean, Urnietako Udalak honako gogoeta eta alegazio hauek egin nahi ditu:

**1) ETXEBIZITZA KOPURUA**

**GOGOETAK**

Dokumentuan, Urnietako herriari dagokion etxebizitza bolumena aipatzen da. Horren inguruan gogoeta hauek egin nahi ditugu:

b) Urnietako Udalak 10 urteko atzerapena darama Hiri Antolamendurako Plan Orokorra egiteko. 1991ko data duen azken HAPOak, aipatu ditugun azken 10 urteetan aukera guztiak agortu dira, eta etxebizitzari dagokionez defizit handia pilatu dugu. Etxebideren datuen arabera 300 etxebizitzako defizita dago, eta horrek etxebizitzaren prezioa igotzea ekarri du, bai salerosketari eta bai alokairuari dagokionez, Urnietako errealitatearekin bat ez datozen prezioak ezarriz. Beraz, gure herriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren hasierako onarpenean aurreikusten ditugun 1140 etxebizitzak lehen LAAk HAPO bakoitzari zegokion etxebizitza kopurua kalkulatzeko erabiltzen zuen formularen azpitik gelditzen dela pentsatzen dugu.

ALEGAZIOA

**Aipatu ditugun gogoetak kontuan hartuta pentsatzen dugu Urnietako HAPOaren hasierako onarpenerako dokumentuak proposatzen duen etxebizitza kopurua zuzena dela, eta beraz, HAPOk proposatzen dituen 1140 etxebizitzak errespetatzeko eskatzen dugu; eta ez daitezela aplikatu udalerriarentzat egokiak ez diren egoitzazko kuantifikazioak PTPa onartu aurretik.**

**2) LEHENTASUNA DUTEN EGOITZAZKO OKUPAZIOAK**

Donostia-Bidasoa Behea Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialean lehentasuna duten esku hartze urbanistikorako eremuak proposatzen dira. Urnietako Udalerriari dagokionez, okupatu beharreko lehentasunezko eremuak hauek dira: A.I.U. 31 AZKARATE-SALESIANOS eta A.I.U.33 TRANKATX. Eta A.I.U.32 Babilonia eremuko ondorengo esku hartzea baztertu egiten da.

# 2011KO MARTXOAREN 9KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 9 DE MARZO DE 2011

**GOGOETA**

Proposamen honi dagokionez, esan behar dugu gaur egun Urnietako udaleko alderdi politiko guztiak ados daudela eremu horren garapenari lehentasunezko garrantzia ematean, bere ekipamenduetan "eskola campusa" baitago. Duela 4 urte baino gehiago aho batez onartutako aldarrikapena da eta Urnietako eskola komunitateak luzez itxaron duena.

**ALEGAZIOA**

Egoitzazko okupazio eremu guztiak mantentzea proposatzen dugu eta A.I.U.32 BABILONIA eremuari lehentasunezko okupazioa ematea.

**3) IRISGARRITASUNA**

**GOGOETA**

Udalerri honek mugikortasun jasangarriaren aldeko apustua egiten du. Horretarako, garapen planetan hainbat helburu proposatu ditu, besteak beste:

Trenaren aldeko apustu sendoa, Renfeko geltokiaren inguruan aparkalekurako neurri osagarriekin konbinatuz, bide berdeak eta hiriko mugikortasun sistemak. Horrek eta herriko eremu ezberdinen arteko interkomunikazioa bultzatzeko beharrak, beharrezko ikusten dute RENFEko geltokia berritu eta eraldatzea. Eraldaketa horrek esan nahi du trenbidearen azpian oinezko pasabide ireki bat izango duen estalpe berri bat eraikitzea.

**ALEGAZIOA**

PTParen trenbide azpiegituren atalaren barruan Urnietako tren geltokiaren egitura eraldatzeko beharra sartzea, garraio publikoaren zerbitzua hobetzeko helburuarekin eta herriko eremu ezberdinen arteko interkomunikazioa.

**4) ESKU HARTZEAK MUGATZEA**

**GOGOETAK**

Donostia-Bidasoa Behea Lurralde Plan Partzialak hainbat esku hartze muga ditu lurralde antolamendiari dagokionez, hiriaren garapenean, jarduera ekonomikoen eremuan, tertziarioak, azpiegiturak, etab. Horrek udalerri bakoitzari ere eragiten dio.

Urnietaren kasuan, MENDEBALDEKO zonaldean muga gisa Urumeako Autobide berria erabiltzea proposatzen da, eta egoki ikusten dugu. Udalerriaren EKIALDEko zonaldean, Lategi auzoko trenbideak ezartzen duen muga gainditzea proposatzen da. Udal honek ez du inolako justifikaziorik ikusten, ez orain eta ez etorkizunean PTP honen esku hartzerako, izan ere plan honen esku hartzearen iraupenak eta Urnietan gaur egun hasierako onarpen fasean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Orokorrarenak

**2011KO MARTXOAREN 9KO UDALBATZARRAREN AKTA**
**ACTA DEL PLENO DEL 9 DE MARZO DE 2011**

denboran bat egingo dute. Bertan ez da espazio hau okupatzeko beharrik aurreikusten, ez garapen urbanistikoetarako ez jarduera ekonomikoetarako. Udalaz gaindiko azpiegitura beharrei dagokionez ere PTPan ez da inolako esku hartzerik aurreikusten.

**ALEGAZIOA**

Urnietako udalerrian Lurralde Plan Partzialaren esku hartze mugak bat etor daitezela HAPOan proposatutakoekin, hala EKIALDEAN muga trenbidea izango du eta MENDEBALDEAN Urumeako autobidea, Urnietako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean jasotzen den bezala.